

EHZ 2015 : 20 Urte, 6 labur metraia !

EHZren 20 URTEEN FILMENTZAT ZINEEGILEEI DEIA

Sarrera

2015an EHZk ospatuko du bere 20º edizioa. Proposamen kulturaletik harat, EHZ laguntzaileek eramaiten duten proiektu engaiatua eta militantea da. Azken 20 ekitaldietan, festibala aintzinatu da Euskal Herriko bai eta munduko historiarekin batera. Festibalak beti aintzindaria izaiteko xedea izan du, hizkuntza, euskal kultura, garapen iraunkorra, lurraldetasuna, besta modeloa (transmisioa, partekatzea, trukatzeari) temei begira...

20 urte esperientzia, 20 urte proiektu eta 20 urte oroitzapen ditugu partekatzeko. Honela, elkartearen bizia kondatu nahi dugu, oroitzapen gazigozoak berriz gogoratuz, sei labur metraia landuz. Helburua festibalaren, bere baloreen, bere arimaren eta elkarte biziaren presentatzea da, ahal bezain osoki eta objektiboki.

Honela, motibatuak diren pertsonak bilatzen ditugu, dokumental hauen burutzen laguntzeko. Proiektu honentzat, ez dugu festibala kronologikoki kondatu nahi izan, baina gehiago azken 20 urteetan izan diren balore eta indarretan oinarritu.

Gaiak:

- Beste besta eredu bat
- EHZ lurraldeari lotua... Baina zein
- Laguntzailea proiektuaren oinarrian
- Historia garaikidea zeharkatzen
- Proiektuen bultzatzaile
- Zein toki kulturarentzat ?

Nola ?

6 labur metraia ;

Izen emaita : Ondoko formularioa bete edo hautagaitza igorri *kontakt @ehz-festibala.eu-ri*, eta hamar lerroko gidoi laburpen bat igorri gehien interesatzen zaituen tematikarentzat.

Errealizazioa : Tematikak banatu eta, festibaleko ekipa batek laguntza ekarriko du sorkuntza prozesu guzian zehar, edukia lantzeko batez ere.

Beste :

- 20-25 minuta filma bakoitza, artxibo eta elkarrizketak segiaraziz
- Festibalak eta Kanaldudek hornitutako irudi eta artxiboak
- Euskaraz egindako dokumentalak (frantsesez itzuliak) : Festibaleko ekipak bikoizketan, azpitoluetan eta beharrezko itzulpenetan lagunduko du.

Ordainez

Festibala engaiatzen da filma egileei medio teknikoak, diru laguntza, artxibo irudiak, laguntza editoriala, komunikazioa eta dokumentalen hedapena hornitzea eta segurtatzea.

Egutegia

- Abendoaren 1a : Araudiaren hastea+ Filma egileei deialdia
- Urtarrilaren 15a : Izena emaitako azken epea
- Urtarrilaren 30a : Filma egileen aintzin-hautua
- Otsailaren 15a : Hautatuekin topaketa
- Martxoaren 30a : Lehen lanaren itzultzea
- Maiatzaren 15a : Azken bertsioaren itzultzea
- Ekainaren 1an : Presentazio gaualdia
- Irailaren 1a : Hizkuntz ainitzetako bertsioaren itzultzea